

◦ Diaspora. Richard Wayne Etulain ◦

«Amerikar kulturak homogeneizatzea bultzatzen du»

Richard Wayne Etulain amerikano baten semea da. Aita, Sebastian Etulain, Nafarroako Eugin jaio zen, eta Ameriketara emigratu zuen 1920ko hamarkadan. Haren semeak ez du aitaren emaria ahaztu. Duela hilabete batzuk EHUra etorri zen ikastaro bat ematera.

Etulaindarren haziak bizirik dirauela ikusteko aukera izan genuen.

MONIKA MADINABEITIA

Noiz hasi zen zure familiaren historia Ameriketan?

Pazifikoko ipar-mendebaldera emigratzen lehenak Eugiko Beltzarena anaiak izan ziren, XX. mende hasieran. Laster nire aitaren bi osaba Washingtingo Yakima aldera joan ziren artzain. 1916an nire aitaren anaia zaharrena joan zen osaba haientzat lan egitera eta bi urte beranduago nire aitaren anaia gazteena. Nire aita 1921ean abiatu zen Yakima aldera. 1950eko hamarkadan, azkenik, aitaren iloba bat animatu zen bertan ardiekin lan egitera. Generazio desberdinetako gizonak emigratu zuten.

Richard Wayne Etulain, Adam biloba besoetan duela.

Senide hauetatik, batzuk bueltatu egin ziren, Beltzarena anaiak, esate baterako. Aitak zioenez, irabazitako diru guztia galdu zuten inbertitzaile maltzur baten eskuetan. Osaba bat ere bueltatu zen urte batzuk beranduago. Ezkondu eta Iruñean egin zuen bizitza.

Zer ogibide izan zuen aitak?

Bere belaunaldiko askok bezala, aitak ardiak zaindu zituen beste batzuentzat; bere kasuan, osaba batentzat. Nahikoa ardi lortu eta bere anaiarekin 1920ko hamarkada bukaeran abeltzain hasi zen. Depresio Handiko zailtasunei aurre eginda, nahiko ondo moldatu ziren biak.



Nire aitak Mary Gillard nire amarekin ezkon-
tzea erabaki zuenean 1936an, berak eta anaiak
jabego eta ardiak banatu zituzten. Aita ardi eta
ganaduarekin aritu zen hurrengo hogeitazet-
tan. Gero Washingtongo Moses Lake-ra joan
eta bertan motel bat eta apartamentuak eraiki
zituen. Bizitzako azken urteetan ametsetako
etxea eraiki, Eugira azken aldiz joan eta inber-
tsioak zaindu zituen.

Nolakoa izan zen bere bidaia Ameriketara?

Aitak askotan hitz egiten zuen hunkituta men-
debalde urrunera egindako bidaiaz. Zioenez,
Eugitik 10 kilometro baino urrunago inoiz
joan gabea zen, Frantzia itsasontzi handia
hartu arte. Hemeretzi urterekin New York hiri-
ra heldu, ospetsua zen euskal hotelean egun
pare bat eman eta trenean sartu zuten "Walla
Walla Washington" zioen txartel bat lepoan
zintzilikatuta. Bidaia luze hartan ez omen zuen
asko jan, ez zekiela nola esan gose edo egarri
zenik. Yakima Valley-ra heldu eta handik egun
gutxira artzain aritu zen bakar-bakarrik bertako
mendietan, nahiz eta ez zen inoiz artzain aritu
Euskal Herrian. Bakarrik eta beldurtuta, negar
ere egin zuen. Esperientzia mingarria eta
gogorra izan zen.

Pareka daitezke Robert Laxalten *Sweet Promi- sed Land* liburuko istorioa eta zure aitarena?

Istorioren horrek ongien irudikatzen duena da,
nire aitak ere, Ameriketara berrogeita hamabost
urte egin ondoren, ez zuela Eugira bueltatu
nahi. Azkenean guk ere etxean konbentzitu
genuen. Esperientzia polita izan zen beretzat.
Halere, badaude ezberdintasunak Laxalten
istoriotik. Aita Ameriketara heldu eta laster
protestante ebanjeliko bihurtu zen. Horretaz
gain, 1950eko hamarkada erdialdean Moses
Lake herritxora joan zen bizitze-
ra. Aita hiriko gizona zen; bizitza
urbanoarekin loturiko lanetan
aritu zen.

Euskal Herriko senideekin badu harremanik?

Bai, gainera azken lau hamarka-
detan areagotu egin da. Lehen
nire aitak bere ahizpa gazteenei,
Juanita eta Carmen, kartak idaz-
ten zizkien. Kartak Frantzia eta
Espainian 1940-1980 hamarkada bitartean zer
gertatzen zen jakiteko bidea izan ziren. Bestal-
de, Juanita gure etxera etorri zen bizitzera den-
boraldi batez eta horrek Euskal Herriko seni-
deekin harremanak estutu zituen.

AEBetako mendebaldeko euskaldunak aztertzen aritu zara. Zer esango zeniguke beraiei buruz?

Nire ikerketa bertako historia eta literatura-
ren inguruan da batez ere; beraz, euskaldun-
ei



buruz idatzi dudanean AEBen mendebalde-
ko historiaren parte bezala nabarmendu
ditut. Ameriketara joandako euskaldunen
historiak Europa mendebaldetik joandako
beste batzuen antz handia du. Halere, badau-
de ezberdintasunak. Euskaldun gehienak
mendebaldean kokatu ziren eta orain bigar-
ren eta hirugarren belaunaldiko euskaldun
askok gurasoen errantxoak utzi dituzten
arren, zeuden zonatan gelditu dira. Horrega-
tik dira oraindik ezagunak euskal komunita-
teak Boisen (Idaho) edota Bakersfield, Chino
eta San Frantziskon (Kalifornia); Buffalon
(Wyoming); Reno eta Gardnerville-Minden
(Nevada). Nire ustez euskaldunek beraiei

ohiturak gorde dituzte: herri-
txotan gelditzen dira, nekazal
balioak mantentzen dituzte,
gutxitan atxikitzen dira elkarte
politikoetara, eta normalean
enpresa eta zuzenbidean lizen-
tziatzen dira. Alor politikoan,
asko errepublikarrak dira, eliza
katolikoari atxikita, eta Ameri-
kako elkarte patriotekin identi-
fikatzen dute euren burua.

Halere, euskal-amerikar gehienak euskal
herriar eta amerikar sentitzen direla uste dut.

Zure burua euskalduntzat jotzen duzu?

Bai, eta horrela adierazten dut, adibidez, nire
baldbasq@unm.edu e-posta helbidean.
1970eko hamarkadan euskal-amerikarrak
aztertze bera jaso nuenetik eta ondoren
egindako lanen ostean, nire euskal nortasuna
areagotu egin da.

**"Reno eta Boiseko Euskal Ikerketa
programak euskal-amerikarren
kontzientzia kulturala
mantentzeko eta indartzeko
itzelezko ahalegina ari dira egiten"**

Ezkerreko orrialdean, Etulainen aitaren 1921eko immigrazio dokumentua. Eskuinekoan, Etulain Idahon, irakasle lanetan hasi zenean.

Euskaldun erdia eta amerikar erdia naiz, zeren eta nire aita euskalduna zen eta nire ama nortasun etniko ezberdinen nahasketa. Halere, ez dut nire burua inoiz amaren jatorri etnikoekin identifikatu.

Nola ikusten duzu euskal kulturaren etorkizuna AEB mendebaldean?

Reno eta Boiseko Euskal Ikerketa programak euskal-amerikarren kontzientzia kulturala mantentzeko eta indartzeko itzelezko ahalegina ari dira egiten. Etorkizunaren giltza da NABOk (North American Basque Organization) eta herrietako euskal zentrotek energia dantza, hizkuntza eta kulturaren bideratzea, horrela euskal nortasun etnikoa bizirik mantentzeko. Amerikar kulturak homogeneizatzea bultzatzen du, baina euskal-amerikarrek beraiei bi kulturak zaindu beharko lituzkete, hots, euskalduna eta amerikarra.

Sweet Promised Land oraindik euskal diasporaren liburu ospetsuena da. Zein da euskal-amerikar literaturaren egoera gaur egun?

Laxalten eleberri-biografia paregabeak mendebaldeko euskaldunei buruz interesa duenarentzat lehen irakurketa izan beharko luke. Horretaz gain, gomendatzen ditut: Laxalten beraren *The Basque Hotel*, bere alaba Monique Urzaren *The Deep Blue Memory*, eta Frank Bergonen *Shoshone Mike* edo bere beste edozein. Beste asko ere bidean datoz, Martin Etcharten *The Good Oak*, adibidez.

Laxalten liburu ospetsua 1957an argitaratu arte euskaldunei buruz idatzitako fikzio eta

ez-fikzio gehiena ez-euskaldunek idatzia zen, askotan igandetako eranskinetan eta oso azaletik. Azkenaldian dozena bat idazle euskaldun baino gehiago aritu dira mendebaldeko euskaldunen inguruan fikzio, biografia eta lan historikoetan. Seinale ona da.

Eta ikerketa historikoaren egoera nolakoa da William A. Douglasssek eta Jon Bilbaok *Amerikanuak: The Basques in the New World* argitaratu zutenetik?

Orain dela 30 urte baino gehiago argitaratu zen lan aitzindari hori da oraindik mendebaldeko Ipar-Ameriketako euskaldunei buruzko ikerketarik onena. Halere, badaude irakurri beharreko beste lan batzuk. Esate baterako, Jeronima Echeverriaren *Home Away from Home: A History of Basque Boardinghouses*, mendebalde urrunera joandako lehen belau-naldiko euskal artzain eta familiei buruz. Badago hamabost euskaldun esanguratsuren biografia bilduma bat, Jeri Echeverriak nirekin editatutako *Portraits of Basques in the New World*. Badago, baita ere, euskal kokaleku garrantzitsu baten monografia eredugarri bat: John eta Mark Bieter-en *An Enduring Legacy: The Story of Basques in Idaho*. Eta gainera, euskal komunitate bati buruz xumeki eta eleberri erara hitz egiten digun Gregory Martinen *Mountain City*. Orain, gainera, euskal-amerikar esanguratsuen inguruko liburu berriak jasotzen hasi gara; adibidez, David Rioren *Robert Laxalt: The Voice of the Basques in American Literature*.

Oro har, 1960ko hamarkadatik aurrera euskaldunei buruzko lan esanguratsuak izan ditugu. Eleberri-idazle, historiagile eta iker-tzaileak ari dira batez ere, eta gehienak euskal jatorrikoak ditugu. Kontu hauei buruz ezagutza freskoa eman nahian ari dira fikzio eta historia bitartez. Eta hori ospatzekoa da.

Zu ere asko idatzia zara.

Ia berrogeita hamar liburu idatzi eta editatu ditut, gehienak mendebaldeko literaturaren eta historiaren inguruan. Garrantzitsuena, *Beyond the Missouri: The Story of the American West*. Euskaldunei buruz editatutako liburuak *Basques of the Pacific Northwest*, aurretik aipatutako *Portraits of Basques in the New World* eta Douglassekin idatzitako *Basque Americans* erreferentzia lana dira. Horiez gain, artikulua asko idatzi ditut mendebaldeko euskaldunei buruz.

Baduzu proiekturik esku artean?

Orain bukatu berri dut Abraham Lincoln eta mendebaldeari buruzko azken lana. Gero, nire ametsa da artzain errantxo batean nire aita euskaldunarekin igarotako haurtzaroari buruz idaztea. ■